

## 500 urte bete dira Adriano VI.a Vitoria-Gasteizen aita santu izendatu zutela



[Kordoi Etxea](#)

### Informazioa

Duela 500 urte, zehazki, Adriano Utrechtekoa kardinal eta Gaztelako erregeordea Kordoi Etxean zegoen ostatu hartuta, Leon X.a aita santuaren oinordeko hautatu zutela jakin zuenean. Urteurren hori dela eta, Vital Fundazioak, eraikin historikoaren jabeak, bertan baitu bere egoitza, eta Vitoria-Gasteizko Udalak, Lurraldeko beste erakunde batzuekin batera, orotzapenezko hainbat ekitaldi aurkeztu dituzte. Horien artean nabarmentzekoak dira Kordoi Etxean egingo diren bisita antzeztuak, 'Adriano VI.a eta bere garaiaren' protagonista diren hiriko lekuetara egingo den hiri-ibilbidea, Arte Sakratuaren Museoan egingo den izaera artistikoko beste ibilbide autogidatu bat edo garai hari buruzko hitzaldiak.

Urtarrila hartan, Adriano Utrechtekoa Sanchez Bilbaotarren etxean Guyenako guduan udaberrian izango zen kanpaina militarra planifikatzen ari zen bitartean, Aita Santu berria izendatuko zuen konklabea burutzen ari zen Erroman. Hilaren 9an, albistea jakinarazi

ondoren, mezulari bana abiatu ziren Vatikanotik: lehenak, Gironako gotzainaren zorion-  
gutuna darama; bigarrenak, mezu ofiziala, baieztapenarekin. Bi asteko bidaiaren ondoren,  
urtarrilaren 22an, Adrianok berri ona jaso zuen azkenean.

Otsailaren 5ean iritsi zen azkenean Erromatik mezuaren eramailea, eta San Frantzisko  
komentura eramatea erabaki zen, Kordoï Etxearen saltegi- eta merkataritza-ingurunea ez  
baitzen Aita Santu batentzat egokiena. Bertan, kargua onartu eta jaunek, apaizek, hiri  
handietako gotzainek, erlijiosoek eta abarrek helarazitako opariak jaso zituen. Gasteizko  
Udalak elikagaiak eta opariak eskaintzea erabaki zuen.

Martxoaren 12an, Arabako hiriburuan hiru hilabetez egon ondoren, Adriano VI.a Erromara  
abiatu zen, eta hil horretako 30ean iritsi zen. Denbora horretan zehar era guztietako  
ospakizunak egin ziren Vitoria-Gasteizko kaleetan.